**Azalpen txostena, Gizarte Politikako Departamentuaren aurrekontuak indarrean dagoen aurrekontuarekin alderatuta agertzen dituen desberdintasun nagusiei eta haiek prestatzean erabilitako irizpideei buruz.**

**Informe explicativo de las diferencias más significativas que presenta el presupuesto del Departamento de Políticas Sociales respecto al vigente y los criterios adoptados en su elaboración.**

Gizarte Politikako Departamentuaren 2017ko aurrekontu proiektua 363.629.151€ eurokoa da, eta, 2016ko hasierako aurrekontuarekin alderatuta, hazkundea 18.250.671€ eurokoa izan da, hain zuzen ere, % 5,28koa.

El proyecto de presupuesto del Departamento de Políticas Sociales para 2017 asciende a 363.629.151€ lo que supone un incremento sobre el presupuesto inicial de 2016 de 18.250.671€, es decir, el 5,28%.

Proiektu hori prestatzeko Diputatuen Kontseiluak onartutako jarraibide ekonomikoak ezarri dira, eta Gizarte Politikako Departamentuari dagokionez ondorengoa aurreikusten dute: mendekotasunaren prestazioetan 2016ko gastua finkatzea, adinekoentzako egoitzen eta eguneko zentroen hitzarmena ezartzea, Departamentuaren eskumen esparruko sektoreetan plaza berriak sortzea, eta gizarte zerbitzuen mapa zabaltzea.

Para la elaboración de este proyecto se han aplicado las directrices económicas aprobadas por el Consejo de Gobierno Foral que, respecto al Departamento de Políticas Sociales, contemplan la consolidación del gasto 2016 en prestaciones para la dependencia, la aplicación del convenio de residencias y centros de día para personas mayores, así como la creación de nuevas plazas en los sectores del ámbito de competencia del Departamento y el despliegue del mapa de servicios sociales.

a.- Mendekotasuneko prestazio ekonomikoen gastua finkatzea.

a.- Consolidación del gasto de las prestaciones económicas por dependencia

Norberaren autonomia sustatzeko eta mendetasunari arreta emateko 39/2006 Legean araututako prestazio ekonomikoak ordaintzeko 2016an onartu zen hasierako aurrekontua ez da nahikoa izan prestazio horien onuradun kopuruan izandako bilakaerari aurre egiteko (Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa, familia inguruneko zaintzetarako zein profesionalak ez diren zaintzaileei laguntzeko prestazio ekonomikoa, eta laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa), kopuru hori hasieran aurreikusitakoa baino askoz handiagoa izan baita. Irailaren 30ean onuradunen kopurua 15.400 da, 2015eko abenduan zeuden 13.750 onuradunen aldean. Hori dela eta, 2017an egokitu egin da aurrekontua, urte osorako aurreikusitako prestazio ekonomikoak finantzatzeko beharrezkoa den zenbatekoa kontuan hartuta.

El presupuesto aprobado inicialmente en 2016 para la financiación de las prestaciones económicas reguladas en la Ley 39/2006, de Promoción de la Autonomía Personal y la Atención a Personas en Situación de Dependencia ha resultado insuficiente para hacer frente a la evolución del número de personas beneficiarias de estas prestaciones (Prestación económica vinculada al servicio, prestación económica para cuidados en el entorno familiar y apoyo a cuidadores no profesionales y prestación económica de asistencia personal), que ha sido muy superior al inicialmente estimado. A 30 de setiembre asciende a 15.400 el número de personas beneficiarias frente a 13.750 en diciembre de 2015. Por ello se ha ajustado el presupuesto en 2017 al importe necesario para financiar las prestaciones económicas previstas durante el año

b.- 2016an sortutako plazen gastua urtekotzea

2016an plaza berriak sortu dira hainbat sektoretan:

- Mendekotasuna duten adineko pertsonentzako egoitza plazak.

- Desgaitasuna duten pertsonentzako eta buru nahaste larria duten pertsonentzako etxebizitzetako plazak.

- Mendekotasuna duten adineko pertsonentzako eguneko zentroetako plazak.

- Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroetako plazak.

- Desgaitasuna duten pertsonentzako zentro okupazionaletako plaza berriak.

2016. urtean ireki diren plaza horiek, jarduera urte oso bati dagokionez, gastu gehigarri bat dakarte 2017an.

c.- Gizarte Zerbitzuen Mapa zabaltzea 2017an

Diputatuen Kontseiluak 2015eko ekainaren 2an onartu zuen Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuetako Mapa 2015-2017, non jasotzen baita nola ezarriko diren Gipuzkoan urtez urte Gizarte Zerbitzuetako Erakunde arteko Organoaren esparruan adostutako irizpideak eta helburuak. Agiri horretan jasotakoa betetzeko, 2017. urteari begira

b.- Anualización del gasto de las plazas creadas en 2016

En 2016 se han creado nuevas plazas en diversos sectores:

- Plazas residenciales para personas mayores dependientes.

- Plazas en viviendas para personas con discapacidad y personas con trastorno mental severo.

- Plazas en centros de día para personas mayores dependientes.

- Plazas en centros de día para personas con discapacidad.

- Nuevas plazas en centros ocupacionales para personas con discapacidad.

Estas plazas, que se han abierto a lo largo del ejercicio 2016 suponen, referido a un año completo de actividad, un gasto adicional en 2017.

c.- Despliegue en 2017 del Mapa de Servicios Sociales

El Consejo de Gobierno Foral aprobó el 2 de junio de 2015 Mapa de Servicios Sociales de Gipuzkoa 2015-2017 que contiene el despliegue anual en Gipuzkoa de los criterios y objetivos acordados en el marco del Órgano Institucional de Servicios Sociales. En ejecución de lo previsto en el referido documento se han

ondorengo helburuak aurreikusi dira: egoitza nahiz eguneko zentroetako plaza kopurua handitzea, mendekotasuna duten pertsonen tutoretza bezalako beste programa eta zerbitzu batzuk hobetzea, bizimodu independenterako programa sustatzea, atsedeneko plaza kopurua handitzea, garapenean nahasmenduak dituzten 6 urtetik beherako haurrei arreta goiztiarra eskaintzea eta abar.

contemplado para 2017 la ampliación de plazas tanto de alojamientos como de centros de día así como la mejora de otros programas y servicios tales como tutela de personas con dependencia, fomento del programa de vida independiente, incremento de plazas de respiro, atención temprana dirigida a la población infantil de 0 a 6 años que presentan trastornos en el desarrollo, etc

d.- Adinekoentzako egoitza eta eguneko zentroetako hitzarmena ezartzea

d.- Aplicación del convenio de residencias y centros de día para personas mayores

Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2015ean, enpresa elkarteei eta sindikatuei aurkeztu zien Gipuzkoa 2015-2016 adineko pertsonentzako egoitzetako hitzarmen kolektiboa berritzeko proposamena. Proposamen horretan lan baldintzen hobekuntza jasotzeaz gain bere konpromisoa jasotzen zuen irabazteko asmoa duten eta irabazi asmorik gabeko entitateei nahikoa finantzazioa bermatuko ziela zerbitzuetako langileen eskubideak hobetzeko.

La Diputación Foral de Gipuzkoa impulsó en 2015, ante las asociaciones empresariales y las centrales sindicales, una propuesta para la renovación del convenio colectivo de residencias para personas mayores de Gipuzkoa 2015-2016 que incluía, además de mejoras laborales, su compromiso para garantizar a las entidades con y sin ánimo de lucro la financiación suficiente para mejorar los derechos de las personas trabajadoras de los servicios.

Horrenbestez, konpromiso hori gauzatzeko, eta enpresa itun horiek dakartzaten ondorio ekonomikoei erantzuteko asmoz, urtero akordio bat hartu behar da ezarriko diren tarifak eta prezioak onartzeko, eta tarifa eta prezio horietan jasota egongo da adostutako enpresa itun horietatik eratorritako eragin ekonomikoa. Beraz, 2017ko aurrekontu proiektuan sartuta daude tarifa horiek eguneratzeko beharrezkoak diren baliabideak, Gizarte Politikako Departamentuaren gastuen aurrekontuan dagoen erabilgarritasunaren muga kontuan hartuta.

Por ello, para materializar este compromiso y con el fin de dar respuesta a los efectos económicos derivados de la aplicación de estos pactos de empresa se hace necesario adoptar, con carácter anual, un acuerdo para aprobar las tarifas y precios de aplicación, incorporando en las mismas el impacto económico derivado de los pactos de empresa suscritos. Así se han incluido en el proyecto de presupuestos de 2017 los recursos necesarios para la actualización de estas tarifas con el límite de la disponibilidad presupuestaria existente en el presupuesto de gastos del Departamento de Políticas Sociales.

e.- Gizarte bazterketa arriskuan bizi diren pertsonen gizarteratzea errazteko baliabide sareko programak eta zerbitzuak sendotzea.

e.- Refuerzo de programas y servicios de la red de recursos para favorecer la inserción social de personas en riesgo de exclusión social

Aurrekontuen proiektuan sartu dira 2016-2020 Elkar-EKIN Gipuzkoako Gizarteratzeko Planak jasotako jarduerak 2017. urtean sustatzeko behar

Se han incluido en el proyecto de presupuesto los recursos necesarios para impulsar en 2017 actividades contempladas en el Plan de Inclusión Social 2016-2020 Elkar-EKIN, entre otras, las

diren baliabideak; hauek dira, besteak beste:

Balio anitzeko eguneko arreta zerbitzuen proposamenak diseinatzea eta ezartzea.

Arreta egokitzea, intentsitate ertain eta handiko irizpideei eskakizun txiki, ertain edo handiarekin erantzunez.

Proiektu integral bat egitea gizarte bazterketa arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko eta lan munduan sartzeko.

Lankidetza akordioak sinatzea beste eragile sozial batzuekin, lan inklusiboa sortu eta sustatzeko.

Gizarte bazterketari buruzko ikerketa proiektuak eta mintegiak egin eta garatzea.

Gizarteratzeko banakako prozesuei lotutako diru laguntzak ematea.

f.- Azkenik, kontuan hartuta “Kabia” foru erakunde autonomoak bere gain hartuko dituela adineko mendekoentzako udal jabetzako egoitzak, egoera horrek eragingo dituen gastuak finantzatzeko 2017an beharko diren kreditu gehigarriak esleitu dira “Foru Erakunde Publikoen Kudeaketa” 400 programan.

siguientes:

Diseño e implantación de propuestas de servicios diurnos polivalentes de atención

Adecuación y adaptación de la atención respondiendo a criterios de alta y media intensidad con baja, media o alta exigencia

Proyecto integral para la inserción social y laboral de personas en riesgo de exclusión social

Ampliación de los acuerdos de colaboración con otros agentes sociales para la generación y fomento del empleo inclusivo

Realización y desarrollo de proyectos de investigación y de seminarios en el ámbito de la inclusión social

Ayudas económicas vinculadas a procesos individuales de inclusión

f.- Por último señalar que en el programa 400 “Gestión de Organismos Públicos Forales” se han consignado los créditos adicionales necesarios en 2017 para la financiación de los gastos derivados de la asunción por el Organismo Autónomo Foral Kabia de la gestión de las residencias para personas mayores dependientes de titularidad municipal que se incorporarán durante el ejercicio 2017